NOLA EMAN SARRERA EUSKALKIARI IKASTETXEAN?

Larraintzar DBHI

NOLA EMAN SARRERA EUSKALKIARI IKASTETXEAN?

Sarrera

Proiektu hau zirriborroa baino ez da. Hau da, ideia solte batzuk bildu eta proiektu baten itxura eman nahi izan zaie. Zerbait gauzatu nahi izanez gero, askoz ere gehiago zehaztu, garatu eta planifikatu beharko litzateke.

Nahiz eta Larraintzarko ikastetxean ikasle eta familia euskaldun asko egon, horrek ez du inolaz ere bermatzen euskararen erabilera, ikastetxe askotan, zoritxarrez, gertatzen den bezalaxe. Hala ere, beste ikastetxe batzuetan baino errazago eman ahal zaio sarrera euskalkiari, zenbait ikaslek Ultzamako hizkeran (Basaburukoak, gehien bat) egiten dute eta. Beraz, sartua dago euskalkia, nolabait.

Dena den, hau bezalako proiektua aurrera eraman ahal izateko, gogoa eta konpromisoa behar da irakasleen partetik. Eta hau lortzea, batzuetan, zaila da.

Agian, eremu euskaldun batean kontua izango da euskararen erabilera sustatzearekin batera euskalkia ere sartzea, tarteka-marteka bada ere.

Nolanahi ere, bi gauzak uztartzen dituena ahozko komunikazioa erraztea, indartzea eta lantzea da.

1. Egoeraren diagnostikoa

Ikastetxea Larraintzarko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzakoa da. D eredua besterik ez dago. Eraikin berean DBH, Haur eta Lehen Hezkuntza daude.

Ikasleak Ultzamakoak eta inguruko ibarrekoak dira. Hona hemen ikasturte honetako hainbat datu:

Ibarra	Kopurua
Ultzama	167
Lantz	5
Atetz	16
Odieta	23
Basaburua[1]	19
Guztira	230

Proiektu hau DBHko ikasleekin garatzeko litzateke.

Euskara ama-hizkuntza duten ikasleak eta gurasoak ez dira gutxi. Behintzat, jaiotzetik euskararekin lotura dutenak. Esate baterako, DBHko 3. mailako ikasleen %60k badu gurasoren bat euskalduna. Eta horien barne, batzuk euskaldun zaharrak. Esan dezakegu familietan jarrera euskararekiko guztiz aldekoa dela. Hori islatzen da euskararen kalitatean. Doinua, ahoskera, hitz-jarioa, hiztegia eta abar onargarriak dira.

Hala ere, gaur egun erronka nagusia erabilera da. Ikastetxean, akademikoak ez diren esparruetan gaztelaniara jotzen dute gehienetan. Joera hori taldearen araberakoa da. Esate baterako, DBHko 1. mailan 4. mailan baino askoz ere gehiago hitz egiten da euskaraz.

Teorian, ingurua euskalduna da, baina euskara ezagutzeak ez du bermatzen erabilera. Ultzaman, esate baterako, espero izatekoa da euskara gehiago entzutea kale eta etxeetan, baina ez da horrela gertatzen. Basaburuan, berriz, erabilera askoz ere zabalagoa da. DBHko 3. mailako Basaburuko 22tik lau ikaslek, gutxienez, euskaraz egiten dute etxean eta bertako aldaeran.

---

[1] Basaburukoak DBH ikastera. Lehen Hezkuntza Jauntsarasko eskolan egiten dute.

Erronka nagusia euskararen erabilera sustatzea izanda ere, euskalkiek izan beharko lukete beren tokia. Badira ikasle batzuk etxeko hizkera euskalkia dutenak eta ikasle horiek eman ahal digute aukera euskalkia ezagutzeko.

Beharbada, Lehen Hezkuntzan ez dauka horrenbesteko garrantzirik euskalkienak. Behintzat, premia bestelakoa da, euskara lantzea, hain zuzen ere, murgiltze ereduko ikasleen mesederako.

Baina DBHn aukera dago euskalkiena lantzeko, hizkuntza gaitasuna, nolabait, bermatuta baitago.

Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistrak egonkorrak dira, baina DBHn behin betikoak lau baino ez dira (DBHn, orotara, hamaika irakasle dira). Beraz, zerbait aurrera eraman ahal izateko, behin betikoek prest egon beharko lukete proiektua gauzatzeko. Beharrik, Euskara irakaslea lau horien artean dago.

Ikastetxean badira bi sukaldari euskaldunak ez direnak. Gainerako langileen arteko komunikazioa euskaraz egiten da.

Irudian ikusten da Ultzamako azpieuskalkiaren eremua. Odieta ibarra ez da agertzen aspaldian euskara galdu omen zelako. Irudia Orreaga Ibarra Murilloren lanetik aterata dago.



2. Hasi baino lehen hartu beharreko hainbat erabaki/oinarri

Landuko den aldaera, zalantza izpirik gabe, Ultzamakoa izango da, goinafarreraren barneko aldaera.

Proiektua aurrera eraman baino lehen, Euskara irakasleak ezagutu, errebisatu, hobetu eta onartu beharko luke, bera baita aditua edo espezialista. Bertako hizkera denez, hor lanean garenok ezagutu beharko genuke. Interesa ere piztu beharko liguke proiektuak, bertako hizkera ezagutzeko aukera baita.

Hainbat irakasgai egokiak dira euskalkiari sarrera emateko, esate baterako HJA (Hezkuntza Jarduera Antolatua) edo Gizarte edo Natur Zientziak (berariazko lexikoaren kasuan).

Zer esanik ez, proiektuak dakartzan jarduera berezien, irteeren edo eskola orduen berri eman behar zaie hezkuntza komunitateko partaideei.

3. Helburuak

Orokorrak:

- Ultzamako hizkera eta inguruko ibarretakoak (batez ere Basaburukoa) ezagutzea.
- Euskalkia erabiltzen duten ikasleak identifikatzea.
- Lagun arteko hizkera eta erregistro formalagoa (euskara batua) desberdintzea.
- Euskararen erabilera sustatzearekin batera, euskalkia erabiltzeko aukerak eskaintzea, (Euskararen Astea, Euskalkiaren Astea, noizbehinkako jarduerak…).
- Euskalkiek duten garrantziaz ohartzea, euskalkiak balioestea.

Zehatzak:

- Tokiko aldaera erabiltzen duten ikasleei hitz egiteko aukera eskaintzea.
- Bertako lexikoa ezagutzea, batez ere oraindik erabiltzen dena.
- Ikasleek Ultzamako hizkeraren hainbat ezaugarri ezagutzea. Hau DBHko bigarren zikloan, batik bat.

4. Edukiak

- Euskalkiaren eta batuaren arteko desberdintasunak, batez ere ahozko komunikazioan.
- Bertako lexikoa, oraindik bizirik dirauena.
- Leku izenak.
- Euskararen aztarnak gaztelanian: lexikoa, “euskarakadak”.
- Ahozko komunikazioa lantzea, hau da, hitz egin, hitz egin eta hitz egin.
- Bigarren zikloan landu ahal dira hainbat aspektu teoriko, beti ere benetako erabilerarekin lotuta (aditz-forma bereziren bat, deklinabideko atzizki bereziak…)
- Jarrera ere oso garrantzitsua da, bai euskararen erabilerarekiko bai euskalkiekiko. Jarrera positiboa landu beharko litzateke. Ohartu daitezela hizkuntzak duen garrantziaz eta euskalkia euskararako aberasgarria dela.

5. Bitartekoak

Hasteko, gogoa behar da proiektu bat aurrera eraman ahal izateko. Gehienetan bezala, inplikatzea, denbora jartzea eta adostasuna lortzea ezinbestekoak dira. Euskara irakasleak edo besteren batek proiektuaren ardura hartuko balu, hobe.

Giza baliabideei dagokienez, teorian, inguru ezin hobea da euskalkia (Ultzamako hizkera) landu ahal izateko. Nahiz eta ikasle askok bertako hizkera ez jakin, batzuek ezagutu eta erabiltzen dute. Zer esanik ez, familietan ere erabiltzen da. Orduan, ikasleak beraiek eta familia batzuk (gurasoek, aitona-amonak…) izango lirateke euskalkia ezagutu, entzun eta hitz egiteko bitartekoak.

Bestelakoak ere beharko lirateke: ikus-entzunezko baliabideak (grabagailua, bideokamera, proiektagailua, kanoia…), gela edo areto aproposa hitzaldietarako edo emanaldietarako, baliabide informatikoak (Internet konexio ona beste euskalki batzuetako hiztunekin harremanetan jartzeko, euskalkiari buruz egin daitezkeen lanak web orri batean plazaratzeko…).

Liburuak, adibidez Orreaga Ibarraren *Ultzamako hizkera: inguruko euskalkiekiko harremanak*, aldizkariak, adibidez Pulunpe (bertako aldizkaria)…

6. Metodologia

Ahal dela, aktiboa.

Ikasleei lehentasuna emango zaie, gai honetan beraiek baitira protagonistak. Adibidez, ekarri nahi bada euskaldun zahar bat hitzaldi bat emateko edo ikasleekin elkarrizketa egiteko, ikasleek bilatu ahal dute herrietan, etxean galdetu ahal dute, berarekin gaia prestatu ahal dute…

Taldekako lana bultzatuko da: ikerketa txikiak herrietan egiteko, mintzaldi laburrak euskalkian prestatzeko, elkarrizketak izateko…

Bereziki, hitz egiteari emango zaio garrantzia.

Edonola ere, hizkuntzaren alderik gozoena, dibertigarriena landuko da, batez ere DBHko lehen zikloan. Bigarren zikloan teoria landu ahal da, bereziki oraindik aditu ahal den euskararekin lotua.

7. Jarduerak

Ultzamako hizkeraren inguruan egin daitezkeen hainbat jarduera:

- Ikasleek beraiek egindako azterketa soziolinguistikoa: herriz herri, euskararen erabilera, bertako euskalkien erabilera, ikasleek etxean euskaraz egiten duten, etxeko ahaideak euskaldun zaharrak diren…
- Hitzaldiak edo elkarrizketak jende adinduarekin. Ikasleren baten aitona-amona, izeba, osaba… Hitzaldiak eta bertako jende euskaldunarekin egindako elkarrizketak izan daitezke oso interesgarriak euskalkia lantzeko. Bide nabar, antzinako ohiturak, nekazaritzarekin edo abeltzaintzarekin lotutako kontuak, lan egiteko modu zaharrak, dagoeneko ospatzen ez diren festak eta abar ezagutu ahal dituzte ikasleek.
- “Nire etxean esaten da…” izeneko jarduera. Ikasleek ekarri ahal dituzte hitz bereziak, esamoldeak, gaztelaniaz erabiltzen dituzten hitzak (*enanzo*, *fardel*, *zolda, biarra*, *ordea*…), gaztelaniazko esaldiak, “euskarakadak” direnak (*¡cuando no se ha caído!*, “erori

ez denean!" esaldiaren kalkoa, adibidez), irainak edo haserretzean botatako hitzak…

- Antzezlan modura, esketx edo gag modukoak prestatu ahal dituzte ikasleek. Elkarrizketa laburrak, bertako euskalkian eginak, gainontzeko ikasleen aurrean antzezteko.
- Bertako esaera zaharrak, kantak, esamoldeak, lexikoa bildu. Jasotako materialarekin erakusketaren antzekoa presta liteke.
- Interneten bidez harremanak sortzea D ereduko beste ikastetxe batekin euskalkien arteko desberdintasunak eta ezaugarri komunak aztertzeko. Hau, beharbada, bigarren zikloan egokiagoa litzateke.

8. Epeak

Proiektua burutu ahal da ebaluazioka.

Lehenengo ebaluazioan proiektua burutuko dutenek (Euskara irakaslea, HJA irakasten duena…) prestatuko dituzte jarduerak, zein mailatan, noiz…

Bigarren ebaluazioan hasiko ziren jarduerak. Hona hemen proposamena:

1. ZIKLOA:

Hitzaldiak edo elkarrizketak jende adinduarekin. Herriko jendea edo ahaideen artean bilatu beharko lukete baten bat euskaldun zaharra dena elkarrizketa egiteko. Grabazioak ere egin daitezke, baina elkarrizketak biziagoak dira. Horrengatik, hobe egitea mailaka, elkarrizketa errazteko.

"Nire etxean esaten da…" izeneko jarduera. Bertako esaera zaharrak, kantak, esamoldeak, lexikoa ere bildu ahal dira. Jasotako materialarekin erakusketaren antzekoa presta liteke.

2. ZIKLOA:

Ikasleek beraiek egindako azterketa soziolinguistikoa: herriz herri, euskararen erabilera, bertako euskalkien erabilera, ikasleek etxean euskaraz egiten duten, etxeko ahaideak euskaldun zaharrak diren…

Hirugarren ebaluazioa:

1. ZIKLOA:

Antzezlan modura, esketx edo gag modukoak prestatu ahal dituzte ikasleek. Elkarrizketa laburrak, bertako euskalkian eginak, gainontzeko ikasleen aurrean antzezteko. Grabatzeko aukera badago, hainbat hobe.

2. ZIKLOA:

Interneten bidez harremanak sortzea D ereduko beste ikastetxe batekin euskalkien arteko desberdintasunak eta ezaugarri komunak aztertzeko. Ondoren, irteeraren bat antolatu ahalko litzateke ikastetxe horretara (Leitza aldera, Baztan aldera…) mintzatu ahal izateko beste ikasle horiekin.

Badira modu gehiago proiektua burutzeko. Adibidez, Euskararen Astea, Korrika Kulturala edo antzekoren bat antolatuko balitz, aurretik egindako lana (grabatutako esketxak eta elkarrizketak, bildutako guztia, beste ikastetxe bateko ikasleen bisita…) aprobetxatu ahalko litzateke erakusteko. Elkarrizketak edo hitzaldiak ere egon zitezkeen. Kanta zaharrak ikasi, antzinako ohiturak ezagutu... Beti ere euskararen erabilera suspertuz eta, bide nabar, euskalkia sartuz.

9. Ebaluazioa

Proiektuaren alderdi hauek ebaluatu beharko lirateke:

- Ikasleen inplikazioa (parte hartu duten ala ez).
- Irakasleen inplikazioa.
- Euskara gehiago erabiltzen ote den.
- Euskalkia ulertu eta erabiltzen duten.
- Jardueren egokitasuna.

Eta abar…

BOLINTXO, Larraintzarko ikastetxeko maskota